Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita. Eskaeran, arauaren eraginpeko herritarren iritzia jaso da, bai eta arauaren eraginpeko eskubide eta interes legitimoak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzen dituzten erakunde edo elkarteena ere, baldin eta haien helburuek arauaren xedearekin zerikusi zuzena badute.

consulta pública previa a la elaboración del texto de la norma a través de anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En ella se ha recabado la opinión de los ciudadanos y ciudadanas afectadas y de las organizaciones o asociaciones que agrupen o representen a las personas cuyos derechos e intereses legítimos se vieren afectados por la norma y cuyos fines guarden relación directa con su objeto, acerca de los extremos en aquélla referidos.

- Hasteko agindu hau emango da, eta ezagutza partekatuko Legesarea lankidetza-gunean argitaratuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakia betez.

- Se dictará la presente Orden de iniciación y se procederá a publicar la misma en el espacio colaborativo de conocimiento compartido Legesarea en cumplimiento del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010.

Halaber, Legegunea publizitate aktiboaren atarian argitaratuko da, gobernu onaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan indarrean dagoen araudia betez.

Así mismo, procederá a su publicación en el portal de publicidad activa, Legegunea, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de buen gobierno, transparencia y participación ciudadana.

Kontuan hartuko da ea zer ekarpen edo oharpen egiten diren, halakorik egiten bada, hasteko agindua iragarki-taulan, Legesarean eta Irekian argitaratu ostean; hori guztia, bermatzeko egokia eta legezkoa dela xedapen orokorrean arautu nahi dena.

Se tendrán en cuenta, en caso de haberlas, las aportaciones y observaciones derivadas de la publicación en el Tablón de anuncios, Legesarea e Irekia de la orden de inicio, todo ello para garantizar el acierto y legalidad de lo que se pretende regular en la disposición de carácter general.

- Genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela justifikatzen duen txostena bidaliko da. Generoaren gaineko eraginaren aurre-ebaluazioari eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezeztatzeko neurrien ezarpenari buruzko gidalerroetan ezarritakoa betez, zeinak Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartu baitziren, 2012ko abuztuaren 21ean.

- Se remitirá el informe justificativo de la ausencia de relevancia desde el punto de vista de género. De acuerdo con lo dispuesto en las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, aprobadas por el Consejo de Gobierno el 21 de agosto de 2012.

- Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak, prozedura hau izapidetzeko ardura duen organoak,

- Se elaborará, igualmente, por parte de la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, órgano encargado de la

memoria bat egingo du, non baloratuko baita eskaera egiten duen elkartearen ordezkagarritasun nahikoaren justifikazioa, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 29.1 artikuluan deskribatutako moduan.

- Segidan, arestian aipatu denarekin bat etorrita, aipatutako legean adierazita dauden jarraibideei jarraituko dien dekretuaren testua idatziko da. Euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluarekin eta Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiarekin bat etorrita (erabaki horren bidez, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorren idazketa elebidunerako neurriak onartzen dira). Itzulpen-lana Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari esleituko zaio. Kontuan hartuko da apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoa (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen du dekretu horrek).

Aurretiaz onestea.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak emango dute dekretu-proiektua aldez aurretik onartzeko agindua.

- Arau-inpaktuaren azterketari buruzko memoria bat landuko da, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 15.3 artikuluan aipatzen dituen alderdi garrantzitsuak jasoko dituena.

- Aldez aurretik onartzeko agindu hori, arau-proiektuaren testuarekin batera, Legesarean argitaratuko da, Gobernu

tramitación del presente procedimiento, una memoria que realice una valoración de la justificación de la suficiente representatividad de la asociación peticionaria en los términos descritos en el artículo 29.1 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre.

- A continuación, se redactará, de conformidad con lo previamente indicado, un texto del Decreto que siga las pautas indicadas en la referida Ley. Esta redacción será de modo bilingüe, de conformidad con el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del euskera, y con el acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden, con asignación de la traducción al Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública. Se tendrá en cuenta lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Aprobación previa.

- Se dictará la Orden de aprobación previa del proyecto de Decreto, de las Consejeras de Gobernanza Pública y Autogobierno y de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

- Se elaborará una memoria del análisis de impacto normativo, que contenga los aspectos relevantes a los que hace referencia el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

- Dicha orden de aprobación previa junto con el texto del proyecto de norma será publicada en Legesarea, en cumplimiento

Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakia betez.

- Kontuan hartuta dekretu-proiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora igorri behar dela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Inguruneko sailburuak testua aldez aurretik onartu ondoren, aldez aurretik onartutako xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Instrukzioa

- Administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan —herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoa— eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30ko 6/2022 Legearen 17. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, informazioa jendaurrean jartzeko izapidea egingo da, dekretu-proiektua hilabete bateko epean argitaratuz EAEko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, egoki irizten dieten iritziak eta ekarpenak egin ditzaten.

- Era berean, entzunaldi publikoaren izapidea emango zaie, hilabete batez, erakunde hauei:

- IZE-Euskadi Ingurumen Adituen Elkartea.

- Euskadiko Biologoen Elkargo Ofiziala.

- Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren Legearen 18. artikuluari jarraikiz, ez zaie beste administrazio publiko batzuei kontsultarik egin behar, arautzen den gaiak ez baitu eraginik

de Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010.

- Teniendo en cuenta que el proyecto de Decreto deberá ser remitido a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, una vez se tenga la aprobación previa del texto por parte de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno y de la Consejera de Desarrollo Económico. Sostenibilidad y Medio Ambiente, el texto de la disposición aprobada con carácter previo se enviará al Parlamento Vasco, según se prevé en el artículo 56.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

Instrucción

- En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sobre la participación de los ciudadanos y ciudadanas en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos, y en el artículo 17 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, se dará el trámite de información pública a la ciudadanía por un plazo de un mes mediante la publicación del texto del proyecto del decreto en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la CAE, a fin de recabar la opinión y aportaciones de la ciudadanía y entidades sobre el proyecto de decreto que se consideren oportunas.

- Igualmente se dará trámite de audiencia pública por un periodo de un mes a las siguientes entidades:

- Asociación de Ambientólogos IZE-Euskadi.

- Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi.

- De conformidad con el artículo 18 de la LPEDCG, no procede la consulta a otras administraciones públicas, por cuanto la materia que se regula no incide en las competencias o actuación de éstas.

administrazio horien eskumenetan edo jarduketan.

- Dekretu-proiektuak txosten eta izapide hauek bete beharko ditu:

- El proyecto de Decreto deberá someterse a los siguientes informes y trámites:

● Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Aholkularitza Juridikoaren nahitaezko txosten juridikoa, izapidetze horretaz arduratzen den organoa den aldetik.

● El informe jurídico preceptivo de la Asesoría Jurídica del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, como órgano responsable de esta tramitación.

● Eusko Jaurlaritzaren sailetako aholkularitza juridikoen txostenak.

● Los informes de las asesorías jurídicas de los departamentos del Gobierno Vasco.

● Kultura eta Hizkuntza Politikako Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, xedatutakoaren arabera.

● Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas de la Vieconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura y Política Lingüística, en virtud de lo previsto en el Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

● Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak txostena egin behar du, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lege horren 19. artikulutik 20. artikulura bitartean xedatutakoa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egiteko.

● El Informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, conforme al artículo 21 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, a efectos de verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en los artículos 19 a 20 de dicha Ley y, en su caso, para realizar propuestas de mejora.

● Enpresaren inpaktu-txostena, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezartzen denaren arabera.

● Se emitirá informe de impacto en la empresa, de conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras a la Pequeña Empresa del País Vasco.

● Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, ekonomiaren eta arauaren kontrolari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu

● Informe de Control Económico-Normativo a emitir por la Oficina de control Económico según lo establecido en el artículo 25 del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad

bateginaren 25. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen testua).

de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre.

● Prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, eta haren edukian berariaz aipatu beharko dira 6/2022 Legearen 24.2 artikuluan aurreikusitako alderdiak.

● Se emitirá una memoria sucinta de todo el procedimiento en cuyo contenido habrá de figurar referencia expresa a los extremos previstos en el artículo 24.2 de la Ley 6/2022.

● Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena eskatuko da, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan xedatutakoa betez.

● Se solicitará el informe de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, en virtud de lo dispuesto en el artículo 3.1 c) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

Horren ondorioz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoa betez, Aholku Batzorde Juridikora bidaliko den dokumentazio bera, aldi berean, Legebiltzarrera bidaliko da, Legebiltzarreko taldeek horren berri izan dezaten.

Como consecuencia de ello, y en cumplimiento de lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 56 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, la misma documentación que se envíe a la Comisión Jurídica Asesora se remitirá, al mismo tiempo, al Parlamento Vasco, a efectos de su conocimiento por parte de los grupos parlamentarios.

- Ez dira eman beharko derrigorrezko txosten hauek:

a) Lan Harremanen Kontseiluarena eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena, ez baita haren eskumeneko gaia, aldatu beharreko araua egitean jakinarazitakoarekin bat etorriz, 6/2022 Legearen 20. artikuluari jarraikiz.
b) Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena, udalerrien eskumen propioei ez eragiteagatik, Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.
c) Generoaren araberako inpaktuari buruzko txostena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren Lehen Gidalerroaren 2.1 atalean xedatutakoaren arabera.

- No procede la emisión de los siguientes informes preceptivos:

a) Del Consejo de Relaciones Laborales y del Consejo Económico y Social Vasco por no consistir en materia sujeta su competencia, en coherencia con lo informado en la elaboración de la norma sujeta a modificación; de conformidad con el artículo 20 de la Ley 6/2022.
b) Informe de la Comisión de Gobiernos Locales por no afectar a las competencias propias de los municipios, de acuerdo con lo previsto en los artículos 90 y 91 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
c) De acuerdo con lo establecido en la Directriz Primera, punto 2.1. a) de la Resolución 40/2012, de 21 de agosto, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por

Horren bitartez xedatzen da argitara eman dadila Gobernu Kontseiluaren erabakia, «generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa». Aztergai dugun araudiaren xedea generoaren araberako eraginari buruzko txostena erantsi beharretik salbuetsitako arau juridikoen proiektuen salbuespenetan dago.

el Consejo de Gobierno «por el que se aprueban las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres», el objeto de la regulación que nos ocupa forma parte de las excepciones de proyectos de normas jurídicas eximidos de la necesidad de adjuntar el Informe de Impacto en Función del Género.

Onartzeko fasea:

- Dekretuaren testuaren behin betiko idazketa egingo da.
- Onartutako testua Gobernu Kontseiluari igorriko zaio, onar dezan.

- Onartutako testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Fase de aprobación:

- Se procederá a la definitiva redacción del texto del Decreto.
- El texto aprobado será objeto de elevación al Consejo de Gobierno para su aprobación.
- Se procederá a la publicación del texto aprobado en el Boletín Oficial del País Vasco.

**i.- Prozeduraren izapidetze elektronikoa.**

Prozeduraren izapidetzea izapidetze elektronikorako «Tramitagune» aplikazio informatikoaren bidez egingo da, Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an eta 2012ko azaroaren 27an hartutako erabakietan xedatutakoari jarraikiz. Erabaki horien bidez onartu ziren, batetik, xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapideak egiteko jarraibideak, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren prozedura jakin batzuk elektronikoki izapidetzeko jarraibideak.

**i.- Tramitación electrónica del procedimiento.**

La tramitación del procedimiento se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica «Tramitagune», atendiendo a lo dispuesto en los Acuerdos de Consejo de Gobierno, adoptados en sus sesiones de fecha 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las instrucciones de tramitación en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, y de fecha 27 de noviembre de 2012, por el que se aprueban las instrucciones para la tramitación electrónica de determinados procedimientos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**j.- Zabalkunde eta publizitate aktiboa.**

- Agindu hau Legesarea izeneko lankidetza-gunean argitaratuko da, Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an xedapen orokorrak

**j.- Difusión y publicidad activa.**

- La presente Orden se hará pública en el espacio colaborativo Legesarea, de conformidad con lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28

tramitatzeko jarraibideak onartzeko hartu zuen Erabakian agindutakoa bete dadin.

de diciembre de 2010, por el que se aprueban las Instrucciones de Tramitación de disposiciones de carácter general.

- Argitara emango da Legegunean sortuko den arau-proiektua, bai eta interesgarritzat jotzen diren garrantzi juridikoko txostenak eta dokumentazioa ere, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluak ezarritakoa betetzeko.

- Se dará publicidad en el espacio Legegunea del proyecto de norma que se elabore y de cuantos informes y documentación de relevancia jurídica se consideren de interés, para dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno.

**k.- Euskaraz eta gaztelaniaz idazteko metodoa.**

**k.- Método para la redacción bilingüe.**

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.1. artikuluan xedatu duena betetzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko IZO-Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena erabiliko dugu kasu honetan.

El sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/ 1982, de 24 de noviembre, Básica de normalización del uso del Euskera, será el de traducción por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública.

Horretarako, Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakia beteko dugu, horrek arautzen baititu lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan prestatzeko neurriak. Dekretua edo Agindua, burutu beharreko negoziatzeko, entzutea emateko eta kontsultatzeko izapideak testua guztiz elebidun dela beteko dira, eta nahitaezko diren txosten eta irizpenak eskatzeko testua bera ere guztiz elebiduna izango da, instrukzioaren fase guztietan.

A este respecto, se seguirá el acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las Disposiciones de Carácter General que adopten la forma de Ley, Decreto legislativo, Decreto u Orden, de tal forma que los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, se seguirán con el texto completo en bilingüe y también será texto completo en bilingüe el que se remitirá a los efectos de la solicitud de informes y dictámenes preceptivos en las correspondientes fases de instrucción.

Azkenean onartzen diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

A fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa,

emitida por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública.

**I.- Europar Batasunaren aurreko izapideak.**

- Ez da beharrezkoa izango Europar Batasunaren aurrean dekretu-proiektu honi buruzko izapiderik egitea, arauaren aplikazio-eremua eta xedea eta helburua kontuan hartuta.

**I.- Trámites ante la Unión Europea**

- No será necesario seguir ningún trámite ante la Unión Europea respecto a este proyecto de Decreto, teniendo en cuenta el ámbito de aplicación y el objeto y finalidad de la norma.

**ERANSKINA**

**PROIEKTATU DEN XEDAPENAK ETA PROIEKTUAK UKITZEN DITUEN XEDAPENEK IZAN DITUZTEN INPAKTU-,EMAITZA- EDO BESTELAKO EBALUAZIOEN DOSIERRA.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, prozedura hasteko aginduari dosier bat erantsiko zaie. Bertan, proiektatutako arauaren eraginaren, emaitzen edo beste mota bateko ebaluazioen berri emango da, baita aurreproiektuak eragindako xedapenen berri ere.

Proposatutako xedapenaren kasuan, elkargo profesional bat, hau da, Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko elkargoa sortzeko Dekretua da, eta ez du inolako aurretiazko xedapenik aldatzen. Baina, hasteko Aginduaren azalpen-zatian agerian geratzen denez, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen aurreikuspenak betez eman nahi da. Profesionalen Elkargo eta Kontseiluen eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuak garatu zuen Lege hori, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 081/2003 zenbakiko

**ANEXO**

**DOSIER EN EL QUE SE CONTIENEN LAS EVALUACIONES DE IMPACTO, DE RESULTADO O DE OTRO TIPO DE LAS QUE HAYAN SIDO OBJETO LA DISPOSICIÓN PROYECTADA Y LAS DISPOSICIONES QUE SON AFECTADAS POR EL PROYECTO.**

De conformidad con lo previsto en el artículo 13.1.c) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a la Orden de Inicio del procedimiento se adjuntará un dosier en el que se contendrán las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto la norma proyectada y las disposiciones que son afectadas por anteproyecto.

En el caso de la disposición propuesta, se trata de un Decreto de creación de un Colegio Profesional, el de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi, que no afecta ni modifica ninguna otra disposición previa, pero, que, como queda de manifiesto en la parte expositiva de la Orden de inicio, se pretende dictar en ejecución de las previsiones de la Ley vasca 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales. Esta ley fue desarrollada por el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales, que fue

irizpena eman zuen.

objeto del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi número 081/2003.

Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte sortutako elkargo profesionalei dagokienez, aipatu behar dira 18/1997 Legea indarrean jarri zenetik onartu diren xedapenak, zerrendatuko direnak, bai eta Aholku Batzorde Juridikoak (Eusko Jaurlaritzarena edo Euskadikoa, dagokion elkargoa sortzeko legea onartu zen egunaren arabera) kasu bakoitzean egindako irizpenei buruzko erreferentzia ere, bakoitzaren ebaluazio dokumentu gisa. Dokumentuok Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren webgunean aurki daitezke, emandako irizpenen zerrendan. Hau da xedapen-zerrenda:

En relación con la creación de colegios profesionales en el País Vasco hasta la fecha, se han de mencionar las disposiciones aprobadas desde la entrada en vigor de la citada Ley 18/1997 que se pasan a relacionar, junto con la correspondiente referencia a los dictámenes realizados por la Comisión Jurídica Asesora (del Gobierno Vasco o de Euskadi, según la fecha de aprobación de la ley de creación del correspondiente colegio), en cada caso, como documentos de evaluación de cada una de ellas, que se pueden encontrar en la página web de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi en su relación de dictámenes emitidos. Así, se trata de las siguientes disposiciones:

-19/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, Euskadiko Podologoen Elkargoa sortzekoa (ez dago jasota Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenik, elkargoa sortzeko legea onartu ondoren sortu baitzen).

-Ley 19/1997, de 21 de noviembre, de creación del Colegio Profesional de Podólogos del País Vasco (no consta dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, dado que ésta se creó con posterioridad a la aprobación de la Ley de creación del colegio).

-3/2000 Legea, ekainaren 29koa, Colegio de Ingenieros en Informática del País Vasco izeneko elkargoa sortzekoa (Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoaren 030/2000 Irizpenaren xedea).

-Ley 3/2000, de 29 de junio, de creación del Colegio de Ingenieros en Informática del País Vasco (objeto del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco nº 030/2000).

-1/2001 Legea, martxoaren 16koa, Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco izeneko elkargoa sortzekoa (Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoaren 107/2000 Irizpenaren xedea).

-Ley 1/2001, de 16 de marzo, de creación del Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco (objeto del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco nº 107/2000).

-7/2003 Legea, abenduaren 22koa, Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco izeneko elkargoa sortzekoa (Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoaren 055/2003 Irizpenaren xedea).

-Ley 7/2003, de 22 de diciembre, de creación del Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco (objeto del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco nº 055/2003).

-4/2006 Legea, azaroaren 10ekoa,

-Ley 4/2006, de 10 de noviembre, de -

Colegio de Logopedas izeneko elkargoa sortzeari buruzkoa (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 006/2006 Irizpenaren xedea).

creación del Colegio de Logopedas. (objeto del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi nº 006/2006).

-10/2008 Legea, urriaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Colegio Profesional de Terapeutas Ocupacionales del País Vasco izeneko elkargoa sortzekoa (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 107/2007 Irizpenaren xedea).

-Ley 10/2008, de 10 de octubre, de Creación del Colegio Profesional de Terapeutas Ocupacionales del País Vasco (objeto del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi nº 107/2007).

-14/2008 Legea, abenduaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Colegio Oficial de Dietistas-Nutricionistas izeneko elkargo Ofiziala sortzekoa (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 132/2008 Irizpenaren xedea).

-Ley 14/2008, de 12 de diciembre, de Creación del Colegio Oficial de Dietistas-Nutricionistas del País Vasco (objeto del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi nº 132/2008).

-17/2012 Legea, ekainaren 28koa, Colegio Vasco de Periodistas izeneko elkargoa sortzekoa. Lege horren jatorria honako legebiltzar-talde hauek planteatutako lege-proposamen bat izan zen: GP Euskal Sozialistak (GP SV-ES), GP Popular Vasco-Euskal Talde Popularra (GP PV-ETP), GP Mistoa-Ezker Anitza-IU (GP Mistoa-IU) eta GP Mistoa-UPyD (GP Mistoa-UPyD).

-Ley 17/2012, de 28 de junio, de Creación del Colegio Vasco de Periodistas, cuyo origen fue una propuesta de Ley planteada por los siguientes grupos parlamentarios: GP Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak (GP SV-ES), GP Popular Vasco-Euskal Talde Popularra (GP PV-ETP), GP Mixto-Ezker Anitza-IU (GP Mixto-IU) y GP Mixto-UPyD (GP Mixto-UPyD).

Ikus daitekeenez, kasu guztietan, elkargo profesionalak sortzen dira, lege-mailako xedapenak onartuz. Hala ere, hasteko Aginduan aipatzen den bezala, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen indarreko testuarekin, lanbidean jarduteko elkargoko kidea izan beharrik ez duten elkargoak sortuz gero, horiek sortzeko xedapenak dekretu-maila izan dezakeela pentsatzeko arrazoi sendoak daude. Halaber, aipatu behar da esandako legearen 29. artikuluan jasotako "*lanbide horretan jarduteko elkargo bateko kidea izatea ezinbestekoa den guztietan*" tartekia apirilaren 23ko 7/2012 Legeak sartu zuela (aurrerantzean, Omnibus legea).
Lege horren bidez, zenbait lege aldatu ziren, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko.

Como se puede apreciar, en todos los casos se trata de creación de colegios profesionales a través de la aprobación de disposiciones con rango legal. Sin embargo, como se menciona en la Orden de inicio, existen razones fundadas para pensar que, con el texto en vigor de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, en el caso de creación de colegios de colegiación no obligatoria para el ejercicio de la profesión, la disposición de creación de los mismos puede tener el rango de decreto. Hay que traer a colación la circunstancia de que el inciso "*siempre que para el ejercicio de dicha profesión sea indispensable la colegiación"* del artículo 29 de la citada fue introducido por la Ley 7/2012, de 23 de abril, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo,

Omnibus legea onartu zenetik, elkargokidea izatea nahitaezkoa ez den elkargo profesional bat sortzea baino ez da onartu, Colegio Vasco de Periodistas izeneko elkargoa, alegia, Colegio Vasco de Periodistas izeneko elkargoa sortzeko ekainaren 28ko 17/2012 Legearen bidez, lege-proposamen bat onartu delako, aipatu berri dugun bezala eta, beraz, ez dago xedapen orokorrei ezartzen zaizkien eragina ebaluatzeko prozeduren mende. Ildo beretik, ebaluazio-dokumentu gisa aipatu behar da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak Omnibus Legearen proiektuari buruz emandako irizpena, 014/2011 Irizpena, besteak beste, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aldatzea ekarri zuena.

relativa a los servicios en el mercado interior (ley ómnibus, en adelante).Se da la circunstancia de que desde la aprobación de la ley ómnibus tan sólo se ha aprobado la creación de un colegio profesional de colegiación no obligatoria, el de periodistas, por Ley 17/2012, de 28 de junio, de Creación del Colegio Vasco de Periodistas, por aprobación de una propuesta de Ley, como se acaba de mencionar, no sometida, por tanto, a ninguno de los procedimientos de evaluación de impacto que se imponen a las disposiciones de carácter general. En el mismo sentido, se debe citar, como documento de evaluación, el Dictamen de la Comisión jurídica Asesora de Euskadi en relación con el proyecto de la Ley ómnibus, Dictamen nº 014/2011 que, entre muchas otras, produjo la modificación de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales.

Bestalde, orain arte ingurumen-adituen elkargo profesionalak sei autonomia-erkidegotan sortu direla aipatu behar da. Elkargo horiek sortzeko xedapenak honako hauek dira:

Por otra parte, también se ha de traer a colación que hasta la fecha se han creado colegios profesionales de ambientólogas y ambientólogos en seis Comunidades Autónomas. Las disposiciones de creación de dichos colegios son las siguientes:

-12/2003 Legea, ekainaren 13koa, Colegio de Ambientólogos de Cataluña izeneko elkargoa sortzekoa.

-Ley 12/2003, de 13 de junio, de creación del Colegio de Ambientólogos de Cataluña.

-5/2008 Legea, maiatzaren 15ekoa, Colegio Profesional de Licenciados en Ciencias Ambientales de la Comunitat Valenciana izeneko elkargo profesionala sortzekoa.

-Ley 5/2008, de 15 de mayo, de creación del Colegio Profesional de Licenciados en Ciencias Ambientales de la Comunitat Valenciana.

-2/2013 Legea, otsailaren 25ekoa, Colegio Profesional de Licenciados y Graduados en Ciencias Ambientales de Andalucia izeneko elkargo profesionala sortu duena.

-Ley 2/2013, de 25 de febrero, por el que se crea el Colegio Profesional de Licenciados y Graduados en Ciencias Ambientales de Andalucía.

-3/2017 Legea, martxoaren 9koa, Colegio Profesional de Ambientólogos de la Comunidad de Madrid izeneko elkargo profesionala sortzekoa.

-Ley 3/2017, de 9 de marzo, de Creación del Colegio Profesional de Ambientólogos de la Comunidad de Madrid.

-4/2018 Legea, maiatzaren 4koa, Colegio Profesional de Ambientólogos de la Comunidad Autónoma de la Región de

-Ley 4/2018, de 4 de mayo, de creación del Colegio Profesional de Ambientólogos de la Comunidad Autónoma de la Región de

Murcia izeneko elkargo profesionala sortzen duena.

-3/2021 Legea, maiatzaren 28koa, Colegio Oficial de Licenciados y Graduados en Ciencias Ambientales de Castilla-La Mancha izeneko elkargoa sortu zuena.

Beraz, esan daiteke dosier honen xede den elkargoa sortzeak berekin ekarriko duela Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten ingurumen-zientzietako profesionalen egoera dagokion elkargoa sortu den gainerako autonomia-erkidegoetako profesionalen egoerarekin homologatzea.

Proiektatutako arauaren eraginari dagokionez, merkatuen lehiari buruzko araudiaren ikuspegitik, Lehiaren Euskal Agintaritzak xedapena izapidetzean emandako txostena aipatu behar da (erreferentzia: LEA/AVC 509-PROM-2021), administrazio-espedientean jasota dagoena.

Azkenik, generoaren araberako eraginari dagokionez, onartu nahi den xedapenak genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela aurreikusten da. Horri dagokionez, azpimarratu behar da ekimen hau sustatzen duen erakundeak planteatutako elkargo profesionalaren estatutuen testuan dagoeneko planteatzen dela gobernu-organoa beti genero-parekotasunaren irizpideekin bat etortzeko beharra.

Murcia.

-Ley 3/2021, de 28 de mayo, por la que se crea el Colegio Oficial de Licenciados y Graduados en Ciencias Ambientales de Castilla-La Mancha.

Así pues, se puede afirmar que la creación del colegio objeto del presente dosier, tendrá el impacto de homologar la situación de las personas profesionales de las ciencias ambientales que ejercen en la Comunidad Autónoma de Euskadi con la de las profesionales del resto de comunidades autónomas donde ya se haya creado el colegio correspondiente.

En relación con el impacto de la norma proyectada desde la perspectiva de la normativa de competencia de los mercados, se ha de citar el informe emitido en la tramitación de la disposición por la Autoridad Vasca de la Competencia, referencia LEA/AVC nº 509-PROM-2021 que consta en el expediente administrativo.

Finalmente, en cuanto al impacto en función del género, se prevé la ausencia de relevancia desde el punto de vista de género de la disposición que se pretende aprobar. A este respecto se debe llamar la atención sobre el hecho de que en el texto de los estatutos del colegio profesional planteados por la entidad promotora de la presente iniciativa ya se plantea la necesidad de que el órgano de gobierno se conforme siempre con criterios de paridad de género.